

MARTIN ZABALETAREN ARROSARIO POLONIARRA, IÑURRATEGITARREN GORAZARREA ETA PUBLIKOAREN BEDEINKAPENA

5578 ikusle bildu zituen Mendi Filmek Bilboko aretoetan abenduan, eskainitako edukieraren %83 betez



Euskalduna, azken ekitaldia

Pandemiaren urteari ongien aurre egin ahal izan zion mendi zinemaldietako bat izan zen iaz, 2020ko abenduan, BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia. Hala aitortu eta eskertu zioten nazioarteko zinemagile entzutetsuenek, deitu Paval Barabás, Michael Dillon, Seb Montaz-Rosset, Paul Diffley, Keith Partridge, nahiz Lara Izagirre, Aner Etxebarria, Ruben Crespo ala Mikel Sarasola.

Euskal Herriko mendi zinemaldiak, Bilbotik mundu osora zabaldu zuten mendiko kulturaren deia. Eta publikoaren babes. Hiriburura eta inguruko herrietara mugatutako eskaintza izanik ere, Euskalduna Jauregia, Sala BBK eta Golem Alhondiga zinemetan sekulako giroa bizitu zen 10 egunez jarraian, abenduaren 4tik 13ra. Neurriak eta zaintza izan ziren lehentasunak, bai, baina kultura ere bai.

Eta bertaratu ezinik geratu edo pelikula eskaintza etxera eramana nahi izan zutenek ere, hauspoa eman zioten jaialdiari Mendi

Film Online eskaintzaren bidez. Arrakasta itzela izan zuen estreinako aldiz egin zen online alokairu zerbitzuak, milaka erabiltzailek jo zuten plataformara pelikulekin gozatzeko.

Publikoaren bedeinkapen horrekin, beraz, antolatzaileak gogobeteta eta zinema industriako zinegile, ekoizle, banatzaile eta abarrek sosegu hartuta amaitu zuten urtea, urte makurra, itxaropen izpi batekin errematatzeak ematen duen pozarekin.

Eta euskal mendi zinemagintza industria da horren onuradun zuzenenetako bat. Mendi Filmeko 13. edizioan 15 euskal pelikulek eman zuten izena, orotara mundu osotik aurkeztu zirenen %8'5 (175 pelikula 36 herrialdeetatik). Eta Sail Ofizialean parte hartzeko galbahea bostek pasatu zuten, bostak ala bostak nazioarteko estreinaldia eginez festibaleko aretoetan: "Mendian Hil, Hirian Hil" (Zuz: Iñaki Peña / Euskarazko Film Onenaren Saria irabazi zuen),



Iwona Zielinska-Sasiada eta Txomin Uriarte.
Martin Zabaletaren arrosario poloniarra

“Aterpean Ateri” (Zuz: Ruben Crespo), “Iparraldean” (Zuz: Romain Jamet), “The Tears of Shiva” (Zuz: Mikel Sarasola) eta “Urmuga” (Zuz: Mattin Zeberio).

Lehiak kanpoko Zabalandi sailean ere beste bi euskal ekoizpen estreinatu ziren: WOP-The Walk On Project Fundazioaren “Arriesgarse a Vivir” (Juanjo San Sebastian, Alberto Iñurrategi, Juan Vallejo, Mikel Zabalza edota Nives Meroi eta Romano Benet daude protagonisten artean), eta “Voices of the Earth: Mogga & Bayandalai” Aner Etxebarria eta Pablo Vidal zuzendariaren serie baten lehen kapitulua, Lara Izagirrearen Gariza Films-ek ekoiztua.

BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia mendi zinemaldia hautatu zuten jendaurrean aurkezteko guztiak, eta nazioarteko jaialdian nola, Mendi Tour zirkuituan hala, erakusteko bidea zabaldu dute. Eredu onak badira atzera luze egin gabe: “Cholitas”, “Harria Herria”, “Bayandalai: Lord of the Taiga”, “Burdinura”... nazioartean oihartzuna izan duten ekoizpenak dira, denak Mendi Filmen estreinatutakoak.

IÑURRATEGITARREN KOMIKIA ETA MARTIN ZABALETAREN ARROSARIOA

2020ko bi urteurren seinalatuek ere eman zuten hizpidea izako Mendi Filmen: Felix Iñurrategi hil zela 20 urte eta euskaldunen Everesteko lehen gailurraren 40. urteurrena.

Sua Edizioak-ekin batera, Mendi Filmek “Iñurrategi Anaiak, Mendiari Bihotz Emanak – Hermanos Iñurrategi, Un Latido en la

Iñurrategi anaiak. Mendiari bihotz emanak



Montaña” komiki liburua aurkeztu zuen haren egile Ramon Olasagasti eta Cesar Llagunoren, eta Alberto Iñurrategiren, eskutik. Anaien ibilbidea bezainbat, haien filosofia eta maite zituzten mendi-lurrekiko errespetua marrazki eta testu jantzietan biltzen duen liburua da, Iñurrategitarrei, bereziki Felixi, gorazarrea.

EMMOA - Euskal Mendizaletasunaren Museoaren izenean, berriz, Antxon Iturrizak eta Txomin Uriartek Martin Zabaletak 1980ko maiatzean Everest gailurretik jaso eta amari ekarri zion arrosarioa, honek hil aurretik museoari emana, erakutsi zuten Bilbon. Juan Pablo II.a Aita Santuak bedeinkatutako arrosarioa ei da, Lhotse mendian 1974an hil zen Stanislaw Latalo zinegile poloniar ospetsuaren amak 1980ko Everesteko neguko lehen igoera lortu zuen espedizioari emana gailurrean utz zezaten, “semearengandik gertuen egon zitekeen lekuan”. Leszek Cichyk eta Krzysztof Wielickik bete zuten promesa 80ko otsailean.

Bada, euskaldunentzat bezainbat, edo areago, da garrantzitsua arrosario hori poloniarrentzat, eta Bilbon, Poloniako Kultura Institutuko ordezkari Iwona Zielinska-Sasiadak berriro poloniar eskutian izan zuen en batez. EMMOAKo kideekin bezala, beste euskal mendizale historiko batekin partekatu zuen Sala BBK-ko agertokia, Gregorio Arizekin. Hala, lehen euskal zazpi milakoa (Shakhaur’76) eta lehen euskal Everest gailurra (Everest’80) gogoan hartuz, euskal eta poloniar mendizaletasunaren gaua izan zen hura.

Baltistan Fundazioak jasotako WOP Saria, Pou Anaien emanaldi berria, EHU-ko Zientzia eta Teknologia fakultateko ikerlarien geologia lezio interesgarriak, Juanjo San Sebastianen liburu berria, Iñaki Ochoa de Olzari buruzko ipuin liburuaren aurkezpena, CVCEPHOTO lehiaketaren 6. edizioko argazki onenen erakusketa, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ternuak Mendi Filmekin batera sortutako zinegile gazteentzako 10.000 euroko beka deialdia... ‘Etxekoek’ nazioarteko kategoria eman zioten pandemia urtean BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia mendi bilkura gogoangarriari.

Egin leku agendan 2021ekoari, abenduaren 3tik 12ra, 14. edizioa, Bilbon.

WOP Saria 2020. Baltistan Fundazioa (Pedro Ibarra)

